

DOKUMENTAZIOA

Agiri eskaneatuak, eta ez dute balio argazkiek.

Ikastetxean lehenago matrikulatutako ikasleak:

- Dirua bankuan sartu izanaren frogagiria, ordaintzeko modalitate hori aukeratuz gero.

Sartu berri diren ohiko ikasleak:

- Nortasun agiriaren fotokopia: NANA, NIE, pasaporte, etab.
- Ikastetxean onartua izateko eskatzen diren ikasketen tituluaren fotokopia (edo frogagiria).
- Agiri tamainako argazkia.
- Dirua bankuan sartu izanaren frogagiria ordaintzeko modalitate hori aukeratuz gero.
- Konpromiso-gutun sinatua.
- Agiri Akademikoetan aurkituko duzuen.

TASAK

- Matrikulazioko tasak (seihileko bakoitzeko) 16€.
- Kreditu bat ECTS ISCREB birtuala DECA (ohiko, gonbidatu eta ohiz kanpoko) 43€.
- Egiaztagiria 26€.

INFORMAZIO

Plaza Nueva, 4 / 48005 BILBAO
Tlf. 944795652, Fax: 946790061
idthp@idthp.org

LEHEN HEZKUNTZAKO DECA

SAREKO IKASKETAK 2022-23



AURKEZPENA

Espainiako Apezpiku-Konferentzia da emandako eskumenak dauzkan organoa profila eta baldintzak ezartzeko, erlijioko maisu eta irakasle tituluak lortze aldera. Hori horrela, haxe behar da bereizi:

Espainiako Apezpiku-Konferentziaren LXXXIX. Osoko Batzarreko (2007ko apirilaren 27a) erabakiaren bidez, Administrazio publikoak norbait erlijio katolikoko irakasle izendatu dezan beharrezkoa da honako baldintza hauek biltzea: Irakaskuntza eta Katekesiko Apezpiku-Batzordeak egindako Gaitasun Akademikoko Eliza-Deklarazioa (DECA) edukitzea, erlijio-eskolak emango dituen elizbarrutiko Ordinarioaren aldetik Egokitasuneko Eliza-Deklarazioa (DEI) lortu izana, eta irakasle trebe eta egoki gisa aipatu elizbarrutiko Ordinarioak aukeratu izana (missio canonica). Cf. Eskakizunak arautegia ezartzeko Gaitasun Akademikoko Eliza-Deklarazioari buruz (DECA), ikastetxeetan eta beste instituzioetan

ISCREBk lagundu egiten dio erlijio katolikoko maisu eta irakasleen heziketari, eta horretarako beharrezko kredituak eskaintzen ditu, hots, DECA (Gaitasun Akademikoko Eliza-Deklarazioa) lortzeko gainditu behar direnak, Espainiako Apezpiku-Konferentziak ezarritako irizpideen arabera.

JASOTZAILEAK

Heziketa eskaintza horretan lehentasunezko jasotzaile dira, alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisuak eta, bestetik, heziketa osatu nahi duten graduatuak, erlijio eskolak eman ahal izateko asmoz. Edozelan ere, heziketa hori interesgarria izan daiteke benetan hainbat lagunentzat, besteak beste: hezkuntza eremutik ezaguerak gaurkotu nahi dutenak kristau egintzari dagokionez, edota baita lehen talde horretan ez dauden arren, kristau federa modu sintetiko eta globalean hurbildu gura dutenak ere. .

IKASKETA PLANA

- Jesusen Berri Ona (6 ECTS)
- Jainkoaren bila gaur (6 ECTS)
- Ebanjelioaren arabera bizitzea (6 ECTS)
- Erlijioaren pedagogia eta didaktika Lehen Hezkuntzan (6 ECTS)

Baldintzak: ezinbestekoa da Irakasle-ikasketako titulua edukitzea (edozein espezialitatetan). DECA lortzeko 24 ECTS ikasi beharko dira. Aukera izango du ikasleak matrikulatzeko Ebanjelioaren arabera bizitzea ikasgaian, lehenago gainditu baldin badu Jesusen Berri ona deritzana.

MATRIKULATZEKO

2022-23 ikasturteko ikasketa birtualetarako matrikula irekita egongo da 2022ko irailaren 4tik 25era bitartean (lehen seihilekorako), eta 2023ko otsailaren 6tik 19ra (bigarren seihilekorako).

Ikasleren batek nahi izanez gero, aukera izango du matrikula gauzatzeko bi seihilekoetarako irailean, eta horretarako kontuan eduki behar du beti zer xedatzen den atalean bateraezintasunei eta kreditu matrikulatuen mugari dagokienez.

Ikasleek matrikula gauzatu ahal izango dute webgunean aurkituko duten inskripzio formularioaren bidez : **matricules.iscreb.org**

Xedatutako matrikulatze denboraldiak bukatu ostean, ez da ikaslerik onartuko ohiko edo ezohiko gisa, ez badago justifikatzen duen ziorik. Kasu horretan eskaria idatziz gauzatu beharko da. Matrikulatze denboraldia amaitutzat hartuta, ikasleek inskripzioa aldatu dezakete astebeteko epean.

